

DANI FANOREN LANA ILUSTRATZAILEAREN TXOKOAZ NAGUSITUKO DA HOGEI BAT LAN IKUSTEKO AUKERA

AIETE KULTUR ETXEA

2018ko **abenduak 12** - 2019ko **martxoak 10**

Komiki binetak, aldizkarien azalak, material didaktikorako egindako kolaborazioak, liburuen azalak, zirriborroak, inspiratzen duten elementuak eta beste hainbat material ikusi ahal izango da.

Moldakortasun eta trebetasun artistiko handiko ilustratzailea da Fano. Izan ere, erakusketa honetan, **90eko hamarkadatik gaur egun arte** egindako lanak, erabili dituen euskarriak eta elementuak, eta lan egin duen testuinguruetan erakusten dira.

Ilustratzailearen Txokoak Fanoren obraren bidez gaur egungo komunikabideetako euskarrietan **narrazio grafikoak duen garrantzia azpimarratzen du**, baita **hainbat esparrutan duen erabilera** ere (*Xabiroi* du izena ilustratzaileak 2005etik hezkuntzarako koordinatzen duen aldizkariak, hain zuzen ere).

Bisitak egiteko ordutegia

Ilustratzailearen Txokoa Aiete Kultur Etxeko gune publikoan kokaturik dago. Bisita doan da.

Abenduak 12-20 / Urtarrilak 7-martxoak 10:

Asteartetik ostiralera: **16:00-20:30**

Larunbatak: **10:00-14:00 / 16:30-20:00**

Igandeak: **10:00-14:00**

Astelehenak eta jaiegunak (urtarrilak 20): itxita

Abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra:

Asteartetik igandera: **10:00-14:00**

Larunbatak, urtarrilaren 5a eta 19a izan ezik: **10:00-14:00 / 16:30-20:00**

Urtarrilak 5 eta 19: **10:00-14:00**

Astelehenak eta jaiegunak (urtarrilak 1 eta 6): itxita

Ilustratzailearen Txokotik pasa direnen zerrenda

2012ko urrian Aiete Kultur Etxean Txokoa ireki zenetik, bertatik igaro dira ilustratzaile klasiko eta berriak:

Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Maite Gurrutxaga, Aitziber Alonso, Jokin Mitxelena, Estibalitz Jalón, Jon Zabaleta, Belén Lucas, Leire Urbeltz, Marrazioak topaketetako artistak, Asun Balzola, Iñaki Martiarena "Mattin", Ainara Azpiazu "Axi", Concetta Probanza, Unai Zoco, Begoña Durruty, Dani Maiz, Lorena Martínez, Idoia Beratarbide, Tomás Hernández Mendizábal eta Iraia Okina. Orain Dani Fanoren txanda da.

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 151 E. kultura_komunikazioa@donostia.eus

www.donostiakultura.eus

Dani Fano, artista

1968an, Donostian jaioa, haurtzaroa arkatx eta margo artean igaro zuen Fanok. Bere eskuetara iristen ziren irudiak kopiatzeko ohitura zuen, baita eskolako apunteak komiki formatuan hartzekoa ere. Amaren bidetik etorri zitzaion komikigintzaren zaletasuna, hark *Vértigo* eta *Epic* aldizkariak oparitu baitzizkion nerabezaroan, mundu oso baten atea zabalduz. Arte Ederretako ikasketak orokorreki iruditzen zitzaizkionez, hezkuntza fisikoaren eta kirolaren alde lerratu zen gaztetan. Gerora, ordea, marrazteko zaletasunak gain hartu zion kirol zaletasunari.

90eko hamarkadaren amaieran ekin zion ilustratzaile gisa bere ibilbide profesionalari. Ikastolen Elkarterako material didaktikoa egiten hasi zen *Urtxintxa*, *Eleanitz* eta *Txanela* gisako egitasmoetan, *Ttamtxo*, *Txirritx* eta *Xango* koloreztatuz.

Komikigile lanaren hastapenak umore grafikoaren alorrean egin zituen. Ildo honetatik, hainbat komunikabide idatzitan kolaboratu du: *Mutxo!* pilota aldizkarian (1998-2000) argitaratu zuen bere lehen komiki-tira eta gerora, *Ardi Beltza*, *Kale Gorria*, *Ipurbeltz*, *Gaur8* eta *H28* aldizkarietan kolaboratu du. 2002etatik eta 2010 urteen artean *Elhuyar* zientzia eta teknologia aldizkarian *Satorrak Ilargian* saila egin zuen. 2012an *Rumble* ilustrazio eta komiki aldizkariako azala egin zuen eta bertan elkarriketa egin zioten.

2005etik aurrera Ikastolen Elkartek plazaratzen duen *Xabiroi* komiki aldizkariaren koordinatzailea da. Aldizkari honetan agertu dira gerora album formatuan argitaratu diren bere hiru lan: *TeleATO!*: *Kalabaza Haluzinogenoak* (2010), lehen lan luzea; *Anubis 3.0* (2012); eta *Kortsarioen Ostatua* (2015). Azken honen gidoia egin zuen Fanok, marrazkiak Guillermo Gonzalezenak dira.

Kortsarioen Ostatuan bezalaxe, 2018an Astiberri Argitaletxeak euskaraz eta gazteleraz argitaratu berri du *Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak*. Fanok beste liburuetan egindako fikzioa alde batera utzi, eta memoria historikoaren berreskurapena oinarri izan du. Zortzi urteko lanaren emaitza da nobela grafiko hau. Migel Marmol, El Salvadorreko Alderdi Komunistaren sortzailearen bizitza islatzen du.

Komikigintzatik bizitzea zaila suertatzen dela dioten arren, azken hamarkadetan, lanaldiaren zatirik handiena binetak egiten dihardu eta gai honekin harremana duten beste ekimenetan ere aritzen da. Adibidez, UEUn ikastaroak eta hitzaldiak eman ditu eta Donostiako Komikigunean *3zangotako* komiki solasaldietan moderatzaile eta antolatzailea da.